

Enseiukarrean

Deustuko Unibertsitateko Aldizkaria

14. zenbakia

Bilbo
Deustuko Unibertsitatea
1999

Zuzendaritza:

Joan Otaegi
Iratxe López

Erredakzioa:

Josu Arroyo
Ainhoa de Diego
Xabier Kalzakorta

Iratxe López
Joan Otaegi

Kolaboratzaileak:

Jose Antonio Ereño
Joxe Azurmendi
Txuma Lasagabaster
Aitor Ibarrola
Patxi Salaberri
Xabier Kalzakorta

Joan Otaegi
Oihane Etxebarria
Saioa Gabikagojeaskoa
Jon Ortiz de Urbina
Iratxe Zuazola
Iratxe López

Batzorde Kontseilaria:

Euskal Ikaskuntzen Institutuko Zuzendaria
Joseba Abaitua
Juan Manuel Etxebarria
Joan Otaegi
Jesus Uranga

Marrazkiak:

Alazne Odriozola

Argitalpena:

Deustuko Unibertsitateko Argitalpen Saila
1 Posta Kutxa - 48080 Bilbo
Tfnoa.: (94) 447 03 58 Fax: (94) 447 26 30

Zabalkundea:

Ediciones Mensajero
Sancho Azpeitia 2, 48014 Bilbo
Tfnoa.: (94) 447 03 58 Fax: (94) 447 26 30

Paper ekologiazkoan irarri argitalpena

ISSN: 1130 - 8192
Legezko gordailua: BI - 1.113-92

Fotokonposaketa: IPAR, S. Coop. - Bilbao
Inprimatzailea: Artes Gráficas Rontegui, S.A.L.

Aurkibidea

Editoriala	9
Jose Antonio EREÑO, <i>Unamunoren tesiaren bi iturri hizkuntzazko eta etnologiako</i>	13
Joxe AZURMENDI, « <i>La revelación que me fue la historia</i> ». <i>Unamunoren Paz en la guerra-z ohar batzuk</i>	25
Txuma LASAGABASTER, <i>Barojaren La leyenda de Jaun de Alzate noblearen irakurketa «heterodoxo» bat</i>	83
Aitor IBARROLA, <i>Hizkuntza poetikoaren lana kontzientziaren garapean: Adrienne Rich-en kasua</i>	93
Patxi SALABERRI, <i>Exenpluak, atsotitzak eta beste Axularren Guero liburuan</i>	109
Xabier KALZAKORTA, <i>Gabon-kanta zahar baten aldaerak</i>	131
Joan OTAEGI, <i>Zentzuen eragina Elorri-ko poetikan</i>	143
Oihane ETXEBARRIA, <i>J. M. Irigoienen Kalamidadeen liburua elaberria</i>	159
Saioa GABIKAGOJEASKOA, <i>J. M. Irigoienen Kalamidadeen liburua. Azteketak pragmatikoa</i>	169
Jon ORTIZ DE URBINA, <i>Ezezko perpausetako fokalizazioaren inguruan</i>	185
Iratxe ZUAZOLA, <i>[Dialektologiara] beste hurbilketa batzuk</i>	201

EXENPLUAK, ATSOTITZAK ETA BESTE AXULARREN GUERO LIBURUAN

Patxi Salaberri Muñoa

Erretorika klasikoan *exemplum* bezala ezagutu ohi dena ez da beti huts-hutsean gaur egun exenplutzat hartzen diren narrazio modukoetara mugatzen, zabalagoa baita esanahiaren esparrua. Kintilianok, esaterako, honela definitzen du *exemplum* delakoa: «est autem id rei gestae, aut ut gestae, utilis ad persuadendum id quod intenderis commemoratio» (*Inst. Or.*, 5,11,1)¹. Ildo berekoa, baina lakonikoagoa da Fr. Luis de Granadak ematen duen definizioa: «Ejemplos, esto es, dichos o hechos insignes» (Granada, *Retórica...*, 510).

Bestalde, Cuevas-ek, *exemplum*-ak Barrokoan hartzen dituen ezaugarri formal, tematiko eta funtzionalak kontutan harturik, honako definizio hau proposatzen du: «un dicho o relato breve en prosa, que puede servir de prueba o ilustración a una doctrina religiosa, o de paréntesis a una conducta moral» (Cuevas 1989, 60).

Egun, dena den, arrunt bihurtu da autoreak —idazleak zein predikariak— azaldu nahi duena arintzeko, frogatzeko edota argitzeko baliatzen dituen ipuin motz antzekoak bakarrik adierazteko erabiltzea *exemplum* hitza.

Ildo horretatik, Le Goff-enean aurkitzen da ziurrenik Axularrena bezalako liburuen testuinguruan *exemplum*-a exenplu (istorio, pasadizo) hutsekin nahastera eraman lezakeen definizioa: «un récit bref donné comme véridique et destiné à être inséré dans un discours (en général un sermon) pour convaincre un auditoire par une leçon salutaire» (Bremont, Le Goff, Schmitt 1982, 37-38). Izan ere, definizio honek exenpluaren ezaugarri garrantzitsuena utzi nahi izan du agerian, hots, haren izaera narratiboa, betiere —eta, bereziki, obra aszetiko-moraletan— gizakiaren konbertsioaren lorpenera iritsi nahi duen pertusasioaren erretorikaren barnean kokaturik.

¹ «Un hecho sucedido, o como sucedió, útil para probar lo que queremos» (l. tom., 272).

Guztiarekin ere, argi dago *exemplum*-aren esparrukoak direla sermoi edota idazkietako ataletan, eta normalean xede didaktikoekin, tartekaturik azaldu ohi diren esaera, atsotitz edota narrazio laburrak.

Historikoki *exemplum*-a erretorika klasikoaren jatorrian bertan zeo- goen, ezinbesteko suertatzen baitzen komentzimendura bideratutako teknika diskurtsibo batean. Jakina, autore kristauak ere berehala ohartu ziren haren balioaz eta berehala ikasi zuten hartaz baliatzen. Baina San Ambrosio eta San Gregorio Handiaren *exemplum*-aren erabilera erlijio- soa zinez arrakastatsua suertatu bazen ere, ohiko predikazioetan ez da haren erabilpen sistematikoa XIII. menderarte finkatuko.

Hurrengo mendeetan, eta batik bat Trentokoaz geroztik sortutako giro ilunen ondorioz, *exemplum* delakoaren esparrukoek arrakasta handi-agoa izango dute eta haien erabilpena askoz ere maizago gertatuko da idatzizko zein ahozko predikazioetan, bereziki esparru narratiboko- ak, hots, guk hemen *exemplu* hitzaren bidez adieraziko ditugunak. Horren arrazoia *exemplu*en iturrietan bilatu beharko litzateke nonbait, izan ere denbora luzez zilegizko eta fede-zalantzarik gabe aurkitu ahal izan- go zen literatura bakarria gertatuko baitziren iturrietako horiek, sain- duen egintzak eta bizitza jasotzen eta isladatzen zituen literatura ere- dugarri bakarria alegia.

1. Exenpluak

Doktrinalki *rationatio*-aren bidezko argumentatzeko erak buruhaus- teak ekar zitzakeen neurrian (gaizki-ulertuak eta irakurle-entzuleen eta, askotan, predikarien beraien prestakuntza maila eskasagatik, etab.), *exenpluak* eurrez zerabiltzan formula induktibo-analogikoak mezua orto- doxia teologiko-doktrinaren barnean mantentzea ziurtatzen zuen.

Horrela, *exemplu* egiazkotzat hartutako gertaera baten azalpena den heinean, berbaldian barrena baieztatu den proposizioaren egia uni- bertsala adibide zehatz eta praktikoa batera biltzea lortzen du. Prakti- kan, beraz, *exenpluak* transmititu nahi zen egia hori zalantzarik gabeko eredu ospetsu eta hurbiletan gauzatu aurkeztea bilatzen zuen.

Axularren obran agertzen den *exemplu* sorta handia, besteak beste, horren guztiaren adibide garbia genuke. Dena dela, ezin ahaz daiteke *exenplu*en ezaugarri horiek guztiak argumentatzeko modu zehatzare- kin tinko lotuta daudena. Jakina, argumentazio mota honen funtzioa erabat proiektiboa da, berbaldiaren pautak eta jokamolde moral gisa, iraganaren esperientzia ereduigarriaren antzera aritzea aldarrikatzen baitu. Ildo horretatik, Axularren liburuaren izenburuarekin bat egingo luke planteamendu horrek.

*Exenplu*en erabilpenaren ezaugarri gagozkielarik, eskaintzen du- ten abantaila andana izango litzateke doktrinalki eta literarioki oharga- rriena. Izan ere, oso laburrak dira normalean eta egiantzekotasun han- dikoak. Horrekin batera, fede eta doktrina arloan *auctoritas* delako baten babesa daukan neurrian, erantzun ezinezko bihurtzen da hartan esaten dena. Bestalde, zentzuari dagokionez, unibokoak direla esan daiteke, hots, ez dutela adierazten dutena baino irakurketa gehiago, irakurketa bakarria dutela azken finean.

Ezaugarrien artean, eta urdazubiarraren esklusibotasunekoak ez den arren, Axularrek eskaintzen dituen *exenplu*en ezaugarri handiena, alabaina, agian bere ahozko izaera da. Beharbada erretorika klasiko guztian ohi den bezala², gurean ere ahozko kotasunarekiko lotura handia markatzen duen elementua da hau. *Guero* bezalako aszetika liburue- tan tartekaturik edo liburu berezietan argitaratuta, *exenpluak* jende xe- heak jasoko dituen kontakizunak dira, andik aurrera ahoz aho ibiliko direnak, tradizionalizazio prozesu batera makurtuz³. Ildo horretatik, predikari edo idazle erlijiosoari interesatzen zaiona alderdi moral eta dogmatiko garrantzitsuenak modurik eraginkorrenean bideratzea da. Prozesu honetan, ahozko kotasunaren faktorea bitarteko bat baino ez da izango⁴.

² Oro har, Axularren planteamendu erretorikoa baloratzeko orduan, bat egin liteke Cerdanek predikari eta sermoinen ahozko kotasunari buruz lutzatzen duen baieztapenarekin: «Es evidente que el predicador, al intercalar en su sermón un *exemplum*, adoptaba plenamente la postura y las técnicas del arte verbal» (Cerdan, 63). Teknika horien artean ez dira gutxieneakoak estrategia linguistikoak, besteak beste horrelako narrazioetan erabi- tzen ziren egitura sintaktiko sinpleak (emendiozko juntagailuak, juntagailu aurkariak an- titesiak areagotzeko, etab.). Are gehiago, bestelako herri tradizioko elementu zenbaite- kin uztartzen bada, Axularren kasuan gertatzen den bezala.

³ *Exenplu* ahozko kulturetan mintzagai bihurtzen da —errepikatua izatera konde- natutako mintzagaia, alegia— eta nolabaiteko iraunkortasuna hartzen du giza taldean, mezu-zabaltzaileak (predikari edo idazleak) nahi izaten zuen efektua lortuta geratzen zelarik. Cuevasen dioen bezala, «su papel divulgador es decisivo. No se trata ya de iluminar la inteligencia de unos pocos teólogos profesionales, sino de cimentar la vida religiosa de todo un pueblo» (Cuevas, 75). Aberatsa da Euskal Literatura elementu horietan. Gogoratu baino ez ahozko tradizioan eta baladetan adierazgarri diren *exenplu*-errefe- rentziak eta irudiak: Santa Klara, etab.

⁴ Ezin ahaz daiteke narrazioek ahozko kulturetan izan zuten balio handia, hau da, munduaren eta baloreen konfigurazaila izatera iritsiko zena, pentsamendua batzeko eta koherente egiteko balioa. *Exemplu* bezala agertuko diren narrazio motzak ere izaera horren areagotzera etorriko dira errepikatua izateko ezaugarriagatik hain zuzen. Char- tierren hitzak gogoratu, «la frecuentación intensa de los mismos textos leídos y releídos modela los espíritus habituados a las mismas referencias, habitados por las mismas citas» (Chartier, 163).

Horrelako adibide edota ereduarekin, jakina, jendearen identifikazioa bilatzen zen⁵ eta, aldi berean, zabaldu nahi ziren mezuak egoera edo pertsonaia batzuen inguruan uztartzea.

Aurrekoarekin lotuta, eta XVI. eta XVII. mendeetan esenpluak zabalteko baliatutako bideei dagokionez, gogoratu behar da sermoiak izan zirela entzule arruntengana iristeko lehenengo bidea eta garrantzitsuena, alfabetatze maila sektore zabal batean oraindik apalegia zenean batik bat. Horrekin batera, tratatu izpiritualak, esenpluak irakurtzen zekitenengana helarazteko balio izateaz gain, tresna egokiak izan ziren bigarren mailako predikazioan ere: ozenki eta jendaurrean (familiarrean batik bat) egindako irakurketaren bidezkoetan hain zuzen.

Horiez gain, etxe eta komentuetatik barrena eurrez irakurtzen ziren *Flos sanctorum* edo bilduma hagiografiko ospetsuek ere protagonismo nabarmena hartuko zuten esenpluaren zabalak hartan. Ere mu biotan, Cuevasek gogoratzen duen bezala, «el «ejemplo» aparece integrado orgánicamente en un contexto de prosa doctrinal o de relato biográfico» (Cuevas, 62).

Ezin dira ahaztu, bestalde, predikari eta idazle erlijiosoen eskuetan egon ohi ziren esenplu-bildumak. Horretara dedikatzen zirentzako espreski prestatu liburuak ziren haiek, gaika ondozkatuak eta erabiltzeko gertu. Axularrek ezagutu zuen kultura espainolean, esaterako, «prados espirituales» bezala azaltzen ziren bilduma horiek, izpirituek bertan bazka zezaten burutuak baitziren.

1.1. Esenpluak guero-n barrena

Guero-n agertzen diren esenplu multzoari dagokionez, aitortu behar da ez dela orekatua, hau da, ez dela maiztasun orekatu batez ematen, lehenengo plama sortan (24-34 orrialdeen artean) mordoxka bat eskaini ondoren, urritu egiten baita gero orrialde anitzetan zehar. Tarte horretan *auctoritas* arloko aipamenak eta adibide biblikoak nagusituko dira, garatzen den gaiaren izaera teorikoarekin (?) bat eginez. Berrero helduko zaio esenpluaren erabilera sistematiko horri bekatu buruzagien kalteak eta erremedioak tratatzerakoan, baina, hori bai, modu lasaia batean eta hobeto dosifikatuz. Kapitulu horiek bukatzean, esenpluak ere bakanduaz joango dira.

⁵ Esenpluak, eredu garrantzitsuen moralaz gain, erakargarritasunaren faktorea ere erantsen zioten liburuari.

Nolanahi ere den, liburuan antzematen diren esenplu horien aurrean, ezaguna da sailkapena irizpide desberdinen arabera egin daitekeela (cfr. Polo de Beaulieu 1993, 279): izan duten jatorriagatik eta informazio-bideagatik, *exempla* direlakoetan parte hartzen duten pertsonaien arabera (gizakiak, animaliak, etab.) edota esenpluak erakusten duten egitura formal eta logikoaren arabera (analogia edo metonimia).

Sailkapenaren problematika, ordea, areagotu egiten da irizpide izan daitezkeen faktore guztiak (jatorria, etab.) argiturik ez daudenean. *Guero*-n daudenak sailkatu beharoko balira, beraz, modu eraginkorrenean sailkatuak izatea eskatuko lukete, beraietan parte hartzen duten protagonisten arabera inondik ere.

Dena den, eta zaletasun taxonomiko hutsak alboratuz, Axularren esenpluak giza protagonisten inguruan garatzen dira nagusiki, eta pertsonaia sailkatuak erlijiosoen bizitzaren pasarteak tartekatzen badira ere (Santa Luzia, San Martin, San Agustin, Paulo abadea, frai Gil, «Hugo Ipizpicu sailkatu» hura [393], etab.), garrantzi handiagoa izango dute Bibliatik jasotako ohiko esenpluak (Sansón, Salomon, etab.).

Halaz ere, gorago aipatu kapitulu «pragmatiko» horietan Historiaren lekukotasuna eta egiantzekotasuna izango dira Axularrek baliatuko dituenak. Horretan, batik bat antzinate klasikotik hartutako esenpluak izango dute protagonismoa. Ez dira faltako Grezia eta Erromako herri eta pertsonaia⁶: Lazedemoniakoak (29, 87), espartarrak, korintiarrak (31, 406), erromatarrak, «Lukano» izenekoak (33), etab. Garaikideagoa bide den lekukotasunik ere bada Indietako herri batzuk (33) aipatzen direnean.

Baina, oro har, pertsonaia historikoei egokituak zaie esenpluaren protagonismoa: Egiptoko faraoia (25-26), «Pisistrato Atenasco tirano gaixtoa» (27), Espartako Kleomenes (29), Erromako Publio Nasika⁷ (30), «Perikles famatua» (31), «Solon handia» (32, 405), «Caton Censorino» (32), «Cotys Traciaco erregea» (288), «Licurgo Thraciaco Erreguea» (408), Herodes («lehenbiko erregea lantza» hura, [300]), Vespasiano enperadorea (313), Antigono erregea (313), Semiramis (344), Katilina (354), «Lenilla ceritçan andre handia» hura (354), Lais eta Demostenes (388), «Erregue Lysimaco» (389), «Erregue Cyro» (393-394), «Alexandro handia» (394), Neron «gaixto» hura (349-351).

⁶ Erreferentzien arabera, Plutarkoren obretatik jasoak lirateke gehienak.

⁷ Gogoratu behar da lerro batzuk beheago «Scipion Capitain famatua» bezala agertzen dena Publio Nasika bera dela. Axularrek jakingo zuen (??) pertsonaia berberaz ari zela, baina ez dirudi irakurle arruntek bakartzat har zitzaketarik. Areago, zalantza handiak izango genituzke Axular horretaz ohartu zela baieztatzeko orduan, izan ere, pasarte biak jarraian eman zituen arren, protagonista desberdintzat hartu zituela baitirudi.

Historikoki modernoagoak direnak ere badira: «Henrico [...] çortcigarren, Ingalaterraco Erreguea» (351), Federiko III.a, Alemaniako enperadorea (406-407), etab.

Bestalde, filosofoak ere izango dira bizitzaren nondik norakoak markatzen: «gimnosophista» izenekoak (32), filosofoak (33-34), Dionisio filosofoa (296), Livio filosofoa (298), Zenon filosofoa (414), Antistenes filosofoa (446), Bias filosofoa (448), Diogenes filosofoa (458), filosofoaren eta zapatagilearen exenplua (430), etab.

Luzeen eta narratiboki borobilenen artean honako hauek azpimarratu beharko liriateke: «Sesostris Egiptoco erreguea» delakoarena (409-411), Zaleuko «Greciaco parte batçuetaco Erregue» haren exenplua, hiru orrialdeko ipuin gisa emana baitago (346-348).

Aparteko erreferentzia mereziko lukete historia naturaletik hartutako exenpluek, hots, animalia eta landareen exenpluek, gatazkatsuak eta, zenbaitetan, gaitzetsiak izan baitziren doktrinan egin zezaketen kalteagatik⁸.

Axularrek, berriz, ez du inolako arazorik izango historia naturalaz ere baliatzeko, doktrinalki ondorio irristakorrenetarikoak baino ez aipatzearen erle eta txinaurrien adibideetatik sortuak genituzkeelarik (*Guero*, 34-37) —gogora bedi Inkisizioak espreski agindu ziola Donibane-Garaziko Huarteri atal hau berau ezabatzeko—. Ezin ahaztu, bestalde, sagarroiarena bera ere.

Areago, burutu nahi izan zuen lan aszetikorako interesgarriak bezain praktikoak iruditu bide zitzaizkion historia naturaleko adibideak. Berak ikusmiran zeukan irakurle / entzuleen izaera herritarra eta *landu*-gabea, eta horren arabera erabiliko zituen gure autoreak.

1.2. Oharkizun zenbait

Nolanahi ere den, badira exenpluen erabilpenari buruz nabarmen utzi beharreko zenbait puntu garrantzitsu Axularren obran zehar. Bestarik ahaztu gabe, erabilpen praktikoaz ari gara batik bat, baliatzeko moduz hain zuzen. Besteak beste, horietako askok autore klasikoan errezepzioan erakutsi mediatizazio bera adieraziko lukete autore kristauen obra zenbaitetan ere.

⁸ Juan de Bonifacioren kondanak, esaterako, ez du zalantzarako tokirik uzten: «A veces entran por la historia natural, que es la más mentirosa que se conoce, y atribuyen a las bestias, a los reptiles, a las aves y a los peces instintos y propiedades que no les dió el autor de la naturaleza» (*De sapiente fructuoso*, 1589, 3. lib. 3. gutuna; apud Olmedo 1960, cxxx).

1. Zinez esan daiteke *Guero*-n bildu exenplu asko eta asko (guztiak?) (erreferentziatu gabekoak barne) garaiko liburu aszetikoetan barreiatuak aurkitzen zirela eta ez bide zen jatorrizko liburuetara joan beharrik erreferentzia zuzenak izateko. Fondo komun ezagun batekoak bailiran agertzen dira normalean. Adibide bezala, gaztelarazko literaturan «dastatze» txiki bat egitea baino ez dugu, izan ere berehala agertzen baita horrelakorik. Oso ospetsua eta hedapen handikoa zen J. B. Sanctoro-ren *Prado espiritual* izeneko liburuan, esaterako, honako hau aurkitzen dugu:

«*De como un Abad curó a un monge que andava encendido en amores*»

«Estava en un monasterio un monge de nacion Griego, mancebo, y de buenas partes y fue tan tentado de amores que en ninguna manera con todos sus ejercicios espirituales y de manos, no podia apagar las llamadas de la carne. Como algunos monges lo sintieron, lo dixeron al Abad, el qual le quiso sanar con una arte maravillosa, y fue que mando a un monge de los mas antiguos, grave y aspero que injuriasse con palabras de mucha deshonra al mancebo, y despues que lo huviesse tratado mal de palabra, el se viniessse a quexar como si huviera sido offendido del monge. El anciano hizo assi, y llevó a otros monges por testigos, los quales testificavan q(ue) el monge Griego avia sido el descomedido y desvergonçado. El Abad entonces reprehendió al monge y le dio penitencia como a culpado. Esto passava cada dia, y viendose el monge maltratado y contanto falso testimonio acuestas, llorava y solloçava, y cada momento derramava muchas lagrymas, y se estava tristissimo en su celda lleno de amargura, y viendose desamparado de todo favor, se echava a los pies de Iesu Christo, y le pedía que bolviesse por el. No se hazia mal recado en toda la casa que no dezian que el lo hazia y luego lo testificavan dos ô mas monges ser assi, y le davan penitencia y reprehensiones como a culpado. Desta manera passo un año, el qual acabado un otro monge le preguntó q(ue) como le yva de amores, y si insistia en sus pensamientos antiguos. Dixo a esto el monge Griego: Valgame Dios, aun vivir no puedo como tengo de andar con pensamientos de amores? De esta manera le curó su padre espiritual, y el monge vencio sus malos pensamientos, y se salvò» (*Sanctoro, Prado...*, 67).

Argi dago *Guero*-n 378-379 orrialdeetan aurkitzen duguna bezalako dela.

2. Exenpluen iturritzat latinez idatzitako obrak ere erabiltzen zituela ikusteko interesgarria bide da Jondone Martinen exenplua (*Guero*, 226-227), besteak beste patristikako liburuetan aurkitu izan baitugu ohiko bihurtu ziren «iturri» haietariko bat, Axularrenarekin ezin lotura

handiago duena. Asko dira antzeko aipamena egiten dutenak: *Martinus adhuc catechumenus hac me veste contextit* (Rabanus Maurus: *Homiliae*; Sulpicius Severus: *De vita beati Martini*, etab.). Edonola ere, Axularren testuingurutik hurbilago geratzen da Hildebertus Cenomansis-ek bere *Sermones* obran dakarrena:

«Cum enim pallium medium egeno partitus fuisset, apparuit ei Christus in nocte, eadem veste inductus, dicens: Martinus adhuc catechumenus hac me veste contextit».

Axularren bertsioa ia hitzez-hitzezkoa da:

«Iondone Marthiec bere caparen erdia probeari eman cioenean abiatu cen laincoa gau hartan berean, capa harçaz estaliric, erraiten çuela sendagaillaz: *Martinus, hac me veste contextit*. Iccussaçue, icchussaçue cer valentia eguin duen Martinec, nola capa hunez estali nauen, cer eman derautan» (*Guero*, 226-227).

Jakina, honekin ez da baztertzen bestelako hipotesirik. Dena den, balirudike exenpluetan, atsotizetan eta sententzietan gaztelera eta latina direla Axularren literatur iturriak. Honek guztiak indartu baino ez luke egingo Axularren liburutegia nagusiki gaztelerez eta latinez (euskarazko testu apurak ahaztu gabe) idatzitako obrez osatua zegoela dioen hipotesia.

3. Zinez pentsa liteke Axularrenean ohiko bihurtu zela exenpluak multzoka hartzearena. Axularrek ez ditu derrigorrez hartzen banan-banan eta gero testuan uztartu. Haren lan egiteko moduak eramaten zuen pasarte luzeak transkribatzera eta gordeta izatera. Gero sermoian edo liburuan erabiltzerakoan ere multzoka erabiltzen bide zituen. Adibideak aipamen biblikoekin, autore klasikoekin eta patristika arloan ere aurki ditzakegu erraz.

Horiatariko nabarmen bat 48. orrialdean dugu. Axularrek *Esaera Zaharrak* liburutik hartutako aipamen bat egin ondoren Bedarena ekarriko du jarraian.

Patristikako testuetan konprobatu izan dugunez, behin baino gehiagotan agertzen dira pasarte horiek biak elkarrekin. Rabanus Maurus-ek *Expositio in Proverbia Salomonis* delakoan, XIII. kapituluaren jarraian emango ditu aipamen biak. Antzeko zerbait egingo dute (nahiz eta testua zertxobait aldatua eman) kulturalki inguru honetan askoz ere ezezagunagoa zen Smaragdus S. Michelis-ek bere *Commentaria in Regula Sancti Benedicti* (38) eta haren kopia dagien Martene Edmundus-ek bere *Comentarius* liburuan.

Horrelako jokabideak ohikoak ziren Elizako Gurasoen artean eta era horretan iritsi izan ziren ondoko mendeetan idatzi liburuetara, batik bat doktrinalki ezer berri aportatu behar ez zuten aszetikakoetara.

Axularrena ez bide zen salbuespena izan jokatzeko modu horretan.

4. Ildo bereko jokabidea litzateke autore klasikoen exenpluetan antzematen dena. Multzoka hartutakoak ere eurrez aurkitu uste izan ditugu. *Guero*-ren lehenengo kapituluaren § 2 atalak, esaterako, garbi adierazten du Axularrek *Silva* edo *Loci* izeneko libururen bat erabili zuela eskuen artean.

Hipotesi honen inguruan areagotzeko ezaugarriak honako hauek genituzke oro har: adibideak gai berari buruzkoak dira, denak jarraian emanak, aipatu liburuetan ohi zen bezala, bata bestearen segidan alegia, obra desberdinetatik jasoak bailiren, eta jatorrizko hizkuntzan, hots, latinez, hitz edo perpaus garrantzitsuenak bakarrik azalduz. Guztiak, ikusten denez, *Silva* eta *Loci* direlakoetako ezaugarriak.

Agian asko arriskatuz, baina hipotesi gisa halere, adibide edo exenplu sorta horien guztien atzean Luis de Granadarena bezalako *Collectanea*-ren bat dagoela pentsa liteke. Honekin ez dugu inolaz ere baieztatu nahi Axularrek *Collectanea* hori⁹ erabili zuela, beste arrazoren artean Axularren eskuetatik ibilitako autoreek ere erabilia izan zezaketelako hain zuzen. Alabaina, ezaguna da Luis de Granadak Plutarkorenak tomo batean bildurik eman zituela bere *Collectanea moralis* hartan, eta, hain zuzen ere, hemen aipatzen direnak (*Guero*, 29-hk.) ia-ia elkarren segidan daude bertan.

Axularrek darabilen ondozkapenari jarraituz, honako hau aurki dezakegu Luis Granadakoarenean:

«Cum Lacedaemoniorum rex polliceretur se funditus eversurum civitatem quandam, quae saepenumero Lacedemonijs negotium exhiberat, non permiserunt Ephori, dicentes, Nequamquam abolebis iuvenum cotem. Urbem infestam appellabant cotem iuventutis, eo quod hostibus semper praesentibus, ipsa iuventus acueretur ad bellandi peritiam. Plut. in Lacon» (*Collectanea*, 877).

«Scipio Nasica, quibusdam dicentibus res Romanas iam in tuto esse, extinctis Carthaginiensibus, & Graecis in servitute redactis: Imò, inquit, nunc demùm summo in periculo sumus, posteaquam nulli supersunt, quos vel timeamus, vel revereamur. Sensit, inimicos per occasionem utiles esse nobis: per quos non licet impunè securèq; negligentes esse. Erasm. lib.8. Apoph» (*Collectanea*, 890-891).

«Cato Sensor semper se harum rerum poenituisse dixit, Si mulieri arcana detexistet: aut si mari profectus esset, quò terrestri itinere

⁹ Hori edo *Collectanea* delakoaren hirugarren edizio hutsa izan behar zuen *Loci communes philosophiae moralis*.

eundi facultatem habebat: aut si per negligentiam dien frustra elabi permisisset. Plutarc. & Ful. lib. 7. cap. 2¹⁰» (*Collectanea*, 891).

«Solonis lex praecipuè laudatur, quae quidem sancivit, filium nequaquam parenti necessaria vitae subsidia debere, à quo nullam artem accepisset. Ubi sup.» (*Collectanea*, 893).

Azterketa exhaustiboa egiteko ez beta ez asmorik izan ez dugun arren, aipatutako adibideekin garbi dago kointzidentzia hutsa baino gehiago dagoela pasarte hauetan. Izan ere, Axularrek erabili zuen ordenamenduak erabateko paralelotasuna erakusten du Granadarenarekin:

29. orrialdean: Lazedemonioen exenpluak

30. orrialdean: Publio Nasicarena¹¹

32. orrialdean: Solonena

Cato Censorinorena

Ezin bazter daiteke Granadak ere bere iturriak izan zituela eta exenpluak, agian, horrela ondozkatuak aurkitu zituela baieztatu lezakeen hipotesia.

Edonola ere, horrelako exenpluak eta aipamenak multzoka hartu ohi zirela adierazten duen adibide nabarmena dugu Granadak bere (?) hitzekin esaten duen ondoko honetan ere:

«Guarda también tu lengua de cualquier palabra torpe; porque las buenas costumbres se corrompen con las pláticas malas. La lengua descubre las aficiones del hombre; porque cual se muestra la plática, tal se descubre el corazón; ca de lo que el corazón está lleno, habla la lengua» (*Guía*, 510).

Axularrek, Granadak ez bezala, iturriak bereiztuz ematen du erabat paraleloa dirudien pasarteak:

«Ceren londone Pauloc dioen beçala: *Corrumpunt bonos mores, colloquia mala* (1 Cor.15). Solhas gaixtoec galtcen dituzte aztura onac. Eta erraiten dute Philosophoec ere: *Voces sunt signa conceptuum*. Mihiac declaratcen du cer daducan bat bederac bere gogoan eta bihotzean. Nor nola mintço baita canpoan, hala ohi da barrenan. Cer baitaduca gogoan, hura aippa nahi du iendartean, mihia da bihotzaren mandataria, mihian da eçagun nor den bat bedera, eta bai nongo den ere. londone Petri eçagutu cen beçala» (*Guero*, 396).

Horrelako gehiago izango genituzke honako hauetan ere: *Es* 26, 11 eta *2 P* 2, 22 (470-471).

¹⁰ Plutarkoren bertsiok Axularrenarekin duen aldeaz ohartzeko, ik. 32-33 orrialdeetako exenpluan egiten duen moldaketa.

¹¹ Kontutan har Granadak dakarren adibidea Erasmoren obratik jasoa dela.

Balirudike, beraz, ereduak sortatan hartzeaz gainera, erreferentzia horiek biak elkarrekin agertzen ziren toki batera, toki berera agian, jo zutela autore biek¹².

5. Exenpluen kasuistika zabalean, dena den, badira zenbait kasu aurreko hipotesi horren sustatzaile izan daitezkeenak. Batetik, behin baino gehiagotan gertatu izan da beste batzuenak balira bezala ematen dituela Axularrek aipamenak. Horietariko bat, esaterako, «Eta badio Casianok ere. *Mulierem ignoro, & virgo non sum* » da. Jakina denez —eta Axularrek ere ondo jakin behar zuen hori, besteak beste Frantzisko Salesekoaren *Filotea* (1609) liburu ospetsuan bertan agertzen baita—, esaldiaren aita San Basilio Magno zen, eta ez berak zioena.

Horrek aipamena beste nonbaitetik hartua zela adieraz lezake inondik ere, eta ez Kasianoren obratik zuzenean.

Badirudi, beraz, Axularrek erabilitako exenpluak —beste autore gehienek bezalatsu— irakurketa aszetikoko liburuetan barreiatu egon ohi zirela. Autoreek gero, funtsezko narrazioak mantenduz, irakurle-entzuleen egoeraren arabera egokitzen eta moldatzen zituzten exenpluok.

Ildo horretatik, ikusia dugu Axularrek ez duela zalantzarik beste autoren hitzak bere obraren izaerara moldatzeko eta, zenbaitetan, zentzua ere aldarazteko. Batzuetan, egia da, beharrezko du esplikazioaz edota anplifikazioaz baliatzea, besteak beste, aipua testuinguruan erraz, zuzen edo egoki sartzen ez delako.

Jakina, jokabide hau batik bat autore jentilekin gertatuko da, eta ez doktrina kristaua garbi eta zalantza izpirik gabe uzten duten egile kristauekin. Hori dela eta, Axularrek doktrina kristaura egokitzeko ukituak egin ohi ditu paganotzat dituen egileen exenplu-aipamenetan. Adierazgarria da, esaterako, Demostenesek *Lais* emagalduekin duen harremanaren ikuspuntu morala eta kristautua, filosofoak inolaz ere izan ez zuena (ikus *Guero* 388).

2. Sententziak, atzotitzak eta beste

Axularrek tartekatzen dituen atzotitzak, aforismoak, sententziak eta antzeko formulak exenpluak baino askoz ere motzagoak badira ere,

¹² De Reuk oroitarazten duen bezala, ez bide da zalantzarik aipatu autoreen iturri zenbaiten amankomuntasunean: «Le chercheur qui étudie deus textes indépendants ayant un choix commun de fragments patristiques peut conclure à l'existence d'une source intermédiaire. Si le chercheur se trouve devant deux textes dépendants, les conclusions s'avèreront d'autant plus faciles» (Reu 1993, 334).

mezuaren iraunkortasuna ziurtatzen dute euren errepikatuak izateko erraztasunagatik eta izaera formulistikoa dela medio.

Historikoki ez dakigu noraino baieztatu daitekeen gure artean erasmismoaren eta humanismoaren eragina ohiko sententzien erabilpenean. Dena den, badirudi kultur eta erlijio tradizio horiei eskerrak antzematen dela euskal letren esparruan erlajazio ñimiño bat Trentokoaz geroztik sortutako giro hertsu eta kontrolatzailearen barruan. Egia da, era berean, gaztelararen eremuan erasmismoari dagokiola neurri handi batean aldaketa horren arrazoia eta erretrauen erabileraren arazoak¹³.

Sententzia, garaiko definizio baten arabera, «oracion tomada de la vida, la cual manifiesta brevemente lo que hay ó lo que conviene haber en la vida» (Granada, *Retórica...*, 525) litzateke. Hitz generiko horrek mota ezberdinetako elementuak adierazten ditu: maximak, aforismoak,... eta, nola ez, atsotitz edo erretra gisakoak, hau da, herri jakituriaren kondentsatzaile moduko *erranak*.

Funtzionalki, ohiko oradoreekin gertatzen ez zen bezala, oratoria sakratuaren esparruan aritu behar zutenek maiz asko erabiltzen zituzten sententziak errealitatearekiko egokitzearen ahal izateko eta, bereziki, azturak eraberritzeko, horrelako esaldiak iltzaturik bezala gertatzen baitziren irakurle-entzuleen oroimenean.

Ez zen hori erabilpenaren zio bakarra, ordea; bazegoen bestelako arazoirik ere, zeren eta, zabaldua zenez, «las buenas sentencias daban autoridad a la doctrina, ornato al sermón y prestigio al orador» (Herre-ro Salgado 1993, 292). Halere, erretorika eklesiastikoaren prezeptibaz arduratu zirenek etengabe jokatu zuten gehiegizko erabileraren aurka, sententziak ere egokiro eta zehurtiaz erabiltzeko beharra azpimarratzen baitzuten.

Sententziak predikarietako asmatuak izan bazitezkeen ere, liburuetan jasotakoetara jotzen zenean, itzulpen egokiaren premia agerian uzten zen berehala, irakurle eta entzuleen mailara egokitzearena hain zuzen. Hori antzemango da, adibidez, Axularrek Bibliako *Esaera Zaharrak* libururik jasotakoetan.

Baina irakurleei hurbilgotik edo aritzeko premiak¹⁴ eta garaiko literaturan azaleratzen hasia zen erlajazio antzekoak joera herritarragoa ahalbidetu zuten gurean. Ildo horretatik, Axularrek lasai asko erabiltzen

¹³ Gogoratu, esate baterako, gero aipatuko diren Publio Sirorenak.

¹⁴ Kintilianok *gnomas* deitutako hauek oso garrantzitsutzat zituzten zenbait erreto-rek. Granadak, adibidez, honela dio: «debe abundar el predicador en su lengua» (Granada, *Retórica...*, 525), hots, behar eta ahal den guztietan erabili eta beti bere hizkuntzatik eta mezu-hartzaileen hizkuntzatik zuzenean jasota.

ditu herri tradizioan txertaturik dauden elementuak, hala nola esakerak eta erretrauak.

Jakina, herri jakituriaren elementua den heinean (eskupilatuegia edota anfibologikoa zenbaitetan), erretoreak —eta zer esanik ez predikariak edo aszetikako idazleak— ongi bereizten eta aukeratzen jakin behar zuen diskurtsoak huts egin ez zezan, sententzia guztiak ez baitziren eginkizun horietarako egokiak.

Axularrek biziki ongi erakutsiko du hautatzeko eta erabiltzeko trebetasuna, darabiltzan erreferentzia kulturalak batzuetan gaztelararen esparrukoak diruditen arren.

Testuan barrena isuritako esaerak eta atsotitzak (edo behintzat guk horrelakotzat ditugunak) bi modutara eman ohi ditu Axularrek: batzuetan zuzenean testuan tartekatutako eta bestetan «erran komuna da» edo antzeko formularen bat erabiliz. Lehenengoek herri mentalitatean sustatuagoak dirudite bigarrenek baino, azken hauek normalean liburuetatik edo inoren *auctoritas* bezala jasoak bailiren ematen baititu. Edozein modutan, multzo bietan antzematen da beste hizkuntzetakoen eragina.

«Erran komun» bezala agertzen diren sententzien artean interesgarrienak edo aipatzekotan, honako hauek ekar litezke:

«Erran comuna da infernua desira onez bethea dagoela¹⁵» (*Guerro*, 49).

«Erraiten ohi da: [...]. Nagiençat eta alferrençat egun guztiac dira besta¹⁶» (49).

«Eztaquiçu, erran comuna den beçala, eztela heriotcea beçain gauça seguric, eta orena noiz içanen den beçain guti guerthuric?» (55).

«Comunzqui ahotan dabillan solhasa da. Eztugu gueroco segurantçaric, bethi gara periletan» (59).

«Hura da, hurran hurran erran comuna den beçala: usoak ioan, sareak heda» (236).

«Ceren nola erran comuna den beçala, otsoac ian baiteçaque ardi contatuetaric¹⁷» (242).

«Ceren erran comuna den beçala, otharre bat eguiten duenac eguin diçaque ehun ere¹⁸» (266).

¹⁵ Gaztelaraz ere bada horrelakorik: «El infierno está lleno de buenos deseos» (Campos eta Barella, 194).

¹⁶ Latinetik hartutako baten itzulpena da bertan ikusten den bezala: Ignavis semper sunt feriae.

¹⁷ Gaztelarazkoa Santillanako Markesak, Juan Valdesek eta Mateo Alemanek darabilte: «De lo contado come el lobo» (Ibid., 206).

¹⁸ Gaztelaraz: «Quien hace un cesto, hará ciento», Juan de Valdesek erabilia: *Diálogo de la Lengua*, 1535 (Ibid., 95)

«[...] guezur bat erraiten duenac, baderraque gehiago ere» (266).
«Ceren erran communa den beçala, iccusten eztuen beguiac eztu minic¹⁹» (290).

«Ceren erran comuna da, gueçurac zaiñac labur dituela²⁰» (514).
«Erran comuna da, ezpatac ezpata sar aracitcen duela maguinan» (570).

«Erran comuna da, [...], eztiacaiola nehorc ere nehoi, hanbat calte eta bidegabe eguin, nola berac bere buruari» (620).

Bestalde, badira *erran komunak* direla adierazi gabe Axularrek tesuratzen dituen sententziak ere. Hona hemen horietako batzuk:

«Ezta concientcia gaixtoaren eguitecoac eta penac baiño pena handiagorik²¹» (429).

«*Quid est autem turpius quam senex vivere incipiens?*, dio halaber Senecac (Senec. epis. 13). Cer da gauça itsusiagoric, bicitcen hasten den çaharra baiño? ²²» (187).

«[...] ceren iocoa ezta errenta» (68).

«Fin gaitz eguinen duc choria, baldin gaztedanic ezpadaguic cafia» (178).

«[...] ecinac eztu legueric» (243).

«Eztu nehorc iragan den uretic hartcen²³» (156).

«[...] no cen tho: emaztea giçon: oilloa oillar» (343).

«Gaitz da [...] errotan irinic ez lotcea» (481).

«Okher hobe, itsu baiño» (347).

«Egur hezeac eguiten du gar, eta eguiten du nigar» (501).

Paralelismoaz baliaturik, honelakoak burutuko ditu Axularrek:

«Dabilan harriari, etçaica goroldioric lotcen²⁴» (38).

«Ur iraquinean eztu uliac pausatcen²⁵» (*Ibid.*).

¹⁹ Gaztelaraz: «Ojos que no ven corazón que no siente»

²⁰ Bada paralelorik gaztelaraz: «La mentira no tiene pies», «La mentira presto es vencia», etab.

²¹ Publio Siro: «Nada hay más miserable que la mala conciencia» (328). Publio Siro K.a. lehen mendeko poeta latinoak dugu. Senekak, Aulo Geliok eta Macrobiok biziki laudatzen dituzte haren obra idatziak. Ez da, beraz, arraroa, haiek ere harenez baliatzen aurkitzea (ikus Senekarena in *Guero* 185). Halere, obra guztietatik *sententzia* bilduma bat baino ez zaigu iritsi. Bertso bakoitzaren lehen letraren arabera ondozkapen alfabetikoa du. Badirudi Erasmo argitaratu zituela lehendabizikoz (Estrasburgo, 1516).

²² Publio Sirok berdintsua dauka: «Nada más vergonzoso que un anciano que comienza a vivir» (329). Halere, Senekarena bailitzen eskaini izanak garbi demostratuko luke Axularrek ez zuela Siroren obra erabili, ez honetan ez besteetan ere.

²³ «Agua pasada no muele molino» delakoaren parekoa.

²⁴ Badu Publio Sirok bere sententzien artean honen parekoa den bat: «Piedra que rueda no cría musgo» (326).

²⁵ Gaztelaraz badago horren antzekoa den erretra: «A la olla que hierve, ninguna mosca se atreve» (Campos eta Barella, 259).

«Arduraco arropari, etçaica cerrenic eguiten» (*Ibid.*).

«Çuhaitz bethacorra, eztu nehorc ebaquitcen» (*Ibid.*).

«Nahi eztuenac erraiçunic, eztemala occasinoric» (403).

«Nahi eztuenac dei deçaten otso, ezteçala iauntz otso-larruric» (*Ibid.*).

«Nahi eztuenac ilkhi dadin kherik, eztaguiela suric²⁶» (*Ibid.*).

Urquijok adierazi zuen bezala, badira zenbait esaldi eta perpaus erretrauen inguruan sortuak. Hau da, esaterako, honako honen kasua:

«Probea gueçurti içaitea, ezta hain miretsteco, ceren *beharrac anhitz gauça eraguin deçaque*²⁷» (*Guero*, 189-190; letrakera etzana Urquijorena da).

Badira beste batzuk atsotitz edo esaera zaharren kutsua erakutsiko dutenak, baina berri samarrak diruditenak, Axularrek berak eratuak. Epifonema gisara ager daitezke horrelakoak²⁸:

«Daguigun ongui, eta ezteçagula beha nori²⁹» (224).

«Emaçu beraz duçunaren arauaz» (229).

«Ceren haserretcea eztago ez hanbat eguitecoaren valioan, nola presunaren condicinoan» (287).

Azpimarratzeko ezaugarri bat deritzogu horrelako sententziak (ohikoak, herri tradizioaren bitartez jasoak eta asmatuak) Axularrek ahozko formulatara sartu nahi izateari, gehienetan homoioteleuton eta homioptotonaren bidez lortutako hoskidetasunaz baliatzen baita urdazubiarrak. Horrez gain, ikusi den bezala, isokolonak ere garrantzi handia du aipatu sententzia gehienak taxutzean.

Alabaina, badira sententzia batzuk nolabaiteko eredu arrotza edo erakusten bide dutenak eta ahozko formulazio edo eredu horietara (homofonia eta neurrikidetasunera, batik bat) erabat biltzen ez direnak:

«Halaco ezteyeta halaco zopac³⁰» (372).

²⁶ Oinarrian «Donde fuego se hace, humo sale» delakoa logoke.

²⁷ Garibayren 63. erretra: «Beharrac bearra eraguiten du» (Urquijo 1919, 600). Duvoisinek Maian jasotako «Beharrak eginarazten du aunitz» (*Rev. Euskara*, 1878, 296 or., apud Urquijo, 600) ere ildo berekoa dela dirudi.

²⁸ Definizioz, «todo lo que en las cláusulas hierve agudamente al oído, es epifonema» (Granada, *Retórica...*, 527b) edo, bestela, «es una sentencia situada en la conclusión de un discurso» (Mortara, 285).

²⁹ Gaztelaraz: «Haz bien y no mires a quién». Honako hau, esaterako, Baltasar Gracian-en *El Criticón*, 3. liburukian (1657) agertzen da (cfr. Campos eta Barella, 45).

³⁰ Paralelismorik aurkitzeko paradarik izan ez dugun arren, oinarrian gaztelarazko hoskidetasun asonantea eta neurri berdina duten «boda(s)» eta «sopa(s)» hitzen oihartzuna antzematen dela pentsa liteke.

«Igzuzquiac beratcen du ezcoa, eta gogortcen lurra³¹» (109).

Ildo beretik, ezin falta zitekeen multzo honetan beste hizkuntza batean bederen parekorik izango duen baliabide paremiologikorik. Hau da, esaterako, ondoko esaldi honen kasua:

«Ceren guizona eta emaztea, sua eta istupa beçala baitira³²» (400).

Gogoratu, bukatzeko, hauen guztien funtzioa ez dela Axularren argumentazioaren euskarri soila izatera mugatuko. Adibide desberdinetan ikusten den bezala, ahozko teknikei lotuta dauden elementu hauek izaera, kolorea, tonalitatea eta grafikotasun-plastikotasuna eskainiko dizkiote lanari neurri handi batean.

3. Konparazioak eta similak

Granadak zioen bezalaxe, konparazioak erabiltzea margolariak dabilten teknika imitatzea baino ez da: «cuando quieren que un color insigne resalte entre los demas, le ponen otro debajo que haga á aquel mas divisado» (Granada, *Retórica...*, 536). Horretarako idazlea «se vale de ejemplos y símiles, en cuya comparación la cosa que quiere alzar de punto parezca la mas excelsa» (*Ibid.* 536).

Axularrek eurrez darabilen bidea da konparazioarena³³. Izan ere, baliabide estilistiko bezala, metafora baino askoz ere arrakastatsua da dirudi konparazioak, eta batez ere aszetika liburu batean. Entzule-irakurle izan daitekeenak ez du inolaz ere diskurtsoaren haria galduko, hobeto ulertuko du esango zaiona eta, jakina, hurbilago nabartuko du testua bera.

Konparazioa, jakina denez, pentsamenduzko irudien esparruko baliabidea da, eta oso xede pragmatikoa du, irakurle-entzuleari puntu desberdinak argitzea eta mezua errazago helaraztea, ahaztu gabe metaforak eta konparazioak bezalakorik ez zegoela irakurle-entzulea de-

³¹ Aurrekoan bezalatsu, hemen ere «cera» eta «tierra» hitzen oihartzuna genuke?

³² Haragiaren bekatutik begiratzeko ihes egitearen lehenengo arrazoia jakituria gnomicoan oinarritzen du Axularrek, gaztelarazko sententzietan aurkitutako esaera paralelo honek erakusten duen bezala: «El hombre es fuego; la mujer, estopa; llega el diablo y sopla» (Junceda, 258).

³³ Aitzitik, ez dirudi Terrones del Cañoren ildokoek joritasun hau hain gogokoegi zutenik: «tampoco se han de traer demasiadas comparaciones, que es de predicadores mozos, y la flor y hervor de la juventud se las ofrece. Bastarán siete u ocho comparaciones en un sermón, si son buenas y vivas; que, si son frías, mejor es dexarlas» (Terrones del Caño, *Instrucción...*, 87-88).

leitatu eta kordokatu ahal izateko. Irudi argumentatiboa izateaz gain³⁴, *amplificatio* izenekorako bitarteko tekniko gisa erabilia izateko ere ezin aproposagoa da. Aldi berean, prosa narratibo-deskriptiboari ere malgutasun plastikoa eskaintzen dio.

Bestalde, konparazioek mezua edo azaldu nahi zena hobeto ulertarazten bazuten ere, adierazitakoa errazago gogoratzen laguntzen zieten mezu-hartzaileei, irakurle edota entzuleei hain zuzen. Ildo horretatik zihoan Ebanjelioaren jokabide orokorra eta horixe zen, azken batean, oratoria sakratuan arituek konparazioak baloratzeko arrazoia.

Oro har, konparazioetan bi elementu desberdinen arteko antza azpimarratzea da bilatzen dena. Harreman edo erkaketa horren bidez elementu haietako baten ideia edo irudia adierazgarriago eta eragingarriago bihurtzea da helburua. Hain zuzen ere, oratoria eklesiastikoan faktore bi horiek derrigorrezkoak izango ziren bilatzen zen konbertsioa gerta zedin.

Hortaz, zeukakeen eraginkortasuna medio, konparazioa oso erabilia izan zen liburu aszetiko-mistikoetan baliabide erretoriko gisara, batik bat kristauen bihotza eta borondatea ongien mugiarazten zituzten amplifikazioak burutzeko bide bezala.

Konparazioak, oro har, predikariak eta idazleek berek asmatuak izan daitezke, betiere eguneroko bizimodutik jasotako erreferentzien bitartez eratuak³⁵. Eta horrela gertatzen bide zen neurri handi batean prediku arruntetan. Bereziki azpimarratzekoa da Axularren konparazioek errealtate hurbilarekin duten lotura irmoa, irakurleen eguneroko bizimodua, lanbidea, natura, pertsonak, etab. baitira beti eredu argumentatiboaren ardatza.

Bestalde, konparazioen erabilpenean bada nabarmentzeko puntu garrantzitsu bat. Eskrituretako zentzu morala gorde beharra zenez gero, predikaria edo idazle erlijiosoak ezin has zitekeen nahi zuena egiten, beste askok egin izan zuten bezala (sermonario zaharretan, batik bat). Errakuntza hori gaingitu ahal izateko Axularrek aholku zaharrari (ikus Diego de Estella fantziskarraren *Modus concionandi*, VII. kap.) segitzen dio, alegia, irudiak konparazio bihurtzen, batez ere Testamentu

³⁴ «Los argumentos de **comparación** se basan en las relaciones de diferencia y de igualdad [...] [eta] comportan una valoración de los objetos a través de su comparación» (Mortara Garavelli, 107).

³⁵ Ezin ahaz daiteke bestelako iturririk ere erabiltzen zela horretara dedikatzen zen eliz jendearen artean. Cerdanek dioenez, «todos los predicadores del siglo XVII tenían a su disposición el conocidísimo libro de Juan Pérez de Moya, *Comparaciones o símiles para los vicios y virtudes* (Alcalá, 1584), que ofrecía frases para todas las ocasiones» (Cerdan, 64).

Zaharretik eta historia liburuetatik sor zitezkeen zentzu moral okerrekoak antzematen zirenean.

Eragozpen horiek *per modum similitudinis* delakoaren bidez gaindi zitezkeen predikariak edo, gure kasuan, idazleak. Horretarako eredu praktikoa *así como* formularekin (eta haren aldakiekin: *como... así...*, etab.) burutuko zen gazteleraz. Euskarazkoa *nola hala...* formulazio-ra bildu zen nagusiki³⁶, ondoko adibideek erakutsi bezala:

«Nola hegaztinari emaiten baitçaitça hegalac, airatceco, eta hegal-datceco: hala guizonari ere emaiten çaitça escuac travaillatceco» (34).

«Ordea nola Hercules hura, harriz, çurez edo cobrez eguina baita, edo pintura bat baicen ezpaita, gueldi dago, kheinatcea eguiten du eta ez bertceric. Hala dira bada, guerotik guerora dabilçanac ere, kheinatcen dira, eta eztute aurthiquitcen: destatcen dira, eta eztute desarratcen. Erraiten dute: eguinen dut; eta eztute behin ere eguiten» (54).

Esan gabe doa: eredu honi jarraikitzen zaizkion konparazioak agortezinak dira Axularren liburuan. Guztiarekin ere, *exemplum* izenekoan arloan prosari arrotz zapore gehiegi itsasten dion elementua agian konparazio mota hau da. Dena den, ez da faltako Axularrenean bestelako konparazio eredurik ere, interesgarrienak estiloa eta erritmoa arinagoa bihurtzeko eratzen dituenak direlarik³⁷.

Bibliografia

- AXULAR (1643): *Guero*, Bordele, (faksimila: Bilbo, Euskaltzaindia, 1988).
- BRÉMOND, CL., LE GOFF, J., eta SCHMITT, J.-CL. (1982): *L'exemplum, Typologie des sources du Moyen Age occidental*, Brepols, Turnhout.
- CAMPOS, J.G. eta BARELLA, A. (1995): *Diccionario de Refranes*, Madrid, Espasa-Calpe.
- CERDAN, Francis (1988): «El sermón barroco: un caso de literatura oral», *Edad de Oro*, VII, 59-68 or.
- CHARTIER, R. (1993): *Libros, lecturas y lectores en la Edad Moderna*, Madrid, Alianza.
- CUEVAS, Cristóbal (1989): «Para la historia del *exemplum* en el Barroco español. (El *Itinerario* de Andrade)», *Edad de Oro* VIII, 59-75 or.

³⁶ Konparazioak, gogoratu beharrik ez dago, ez dira beti konparaziozko egitura sintaktiko horien bidez burutzen. Aski da konparagarri irizitako elementua azaltzea eta gero *hala* edo *halatan* sarrera-formula baten bidez aurkeztea elementu konparatua.

³⁷ Honen ildokoak, esate baterako: «Presuna haserrekorrak, zuhaitz aranzetsuak *bezala* dira, eztira ferekatzeko on; nehork uki balitza zaurtzen dute. Harri mugerraren *pare* dira, barrenean dute sua, asko dute ukitzea. (290; gurea da letrakera etzana).

- GRANADA, Luis de (1944): *Guía de Pecadores*, in *Obras del V.P.M. Fray Luis de Granada*, I, Madrid, Imprenta de la Publicidad (BAE VI), 1-470 or.
- (1945): *Retórica Eclesiástica o de la manera de predicar*, in *Obras del V.P.M. Fray Luis de Granada*, III, Madrid, Imprenta de la Publicidad (BAE XI), 488-642 or.
- (1571): *Collectanea Moralis Philosophiae, in tres tomos distributa: quorum primus selectissimas sententias ex omnibus Senecae operibus, Secundus ex moralibus opusculis Plutarchi, Tertius clarissimorum principum & philosophorum insigniora apophthegmata ... complectitur..* Olisippone.
- HERRERO SALGADO, Félix (1993): «La *Rhetorica ecclesiastica* de fray Luis de Granada y las retóricas cristianas del Siglo de Oro», in A.A., 265-302 or.
- HUARTE DE SAN JUAN, J. (1575): *Examen de ingenios para las ciencias*, [orain: F. Fresco Otero ed. (1991): Madrid, Espasa-Calpe].
- JUNCEDA, L. (1994): *Diccionario de Refranes*, Madrid, Espasa Calpe.
- MORTARA GARAVELLI, Bice (1991): *Manual de retórica*, Madrid, Ed. Cátedra.
- OLMEDO, Félix G. (1960): «Prólogo», in Terrones del Caño: *Instrucción de Predicadores*, Madrid, Espasa-Calpe, IX-CLVI or.
- (1994): *Patrología Latina*, Migne-ren edizioa CD-Rom formatoan, CETEDOC.
- POLO DE BEAULIEU, Marie-Anne (1993): «Des histoires et des images au service de la prédication: la *Scala Coeli* de Jean Gobi junior (+1350)», in Hamesse, J. 1945 eta Hermand, X. (ed.), *De l'hoélie au sermon. Histoire de la prédication médiévale*, Actes du Colloque international de Louvain-la-Neuve (9-11 de juillet 1992), (Publications de l'Institut d'Etudes Médiévales, 2e série, Textes, Etudes, Congrès, vol. 14), Université Catholique de Louvain, Louvain-la-Neuve, 279-312.
- QUINTILIANO, Fabio (1916): *Instituciones Oratorias*, I eta II, Madrid, Perlado Páez y Compañía (Sucesores de Hernando), (itzulpena: Ignacio Rodríguez eta Pedro Sandier).
- SANCTORO, J. Basilio (1607): *Prado espiritual recopilado de antiguos, clarissimos y santos doctores*, Madrid, J. de la Cuesta.
- TERRONES DEL CAÑO, Fco. (1617): *Instrucción de Predicadores*, Granada, [orain: Olmedo (ed.) 1960, Madrid, Espasa-Calpe].
- URQUIJO, Julio de (1919): *El Refranero Vasco. Tomo I. Los refranes de Garibay*, San Sebastián, (hemen erabili dena: RIEV XXVII, 493-624 or).